


Nafarroako Osasun Sistema Publikoa Humanizatzeko 2024-2028 Estrategia berriaren parte-hartze publikoaren prozesua ireki du Osasun Departamentuak

Herritarrek eta osasun arloko profesionalak urriaren 9ra arte egin ditzakete ekarpenak Gobernu Irekiaren webgunean

Asteazkena, 2024ko Irailaren 11a



 Osasun arloko humanizazio estrategia berritzeko lan taldea parte hartze prozesuan.

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak parte-hartze prozesu bat sustatu du 2024-2028 Nafarroako Sistema Publikoa Humanizatzeko Estrategia garatzeko, eta, horretarako, jendaurreko erakustaldi bat ireki du 2024ko urriaren 9ra arte. Epe horretan, Estrategiaren oinarritzko dokumentuaren edukia ikusi ahal izango da, eta ekarpen zehatzak egin ahal izango dira egungo laguntza eredu hobetzeko.

Nafarroako Osasun Sistema Publikoa Humanizatzeko Estrategia 2017an sortu zen eta profesionalen jarduna hala nola herritarren osasun beharrak bateratzen dituen arreta-eredu bat ezartzen du, pertsona bakoitza, eta ez gaixotasuna edo arreta emateko prozesua, arreta-gune nagusi gisa hartzen duen asistentzia-eredu baten lorpenera bideratua.

2022 eta 2023 urteetan, Humanizazio Estrategiaren ildoan eta 2018 eta 2022 urteen artean garatutako ekintzen analisi-faseak gauzatu ziren, eta aldi hori, besteak beste, COVID-19 pandemiaren eraginak markatu zuen. Horretarako, Estrategia Ebaluatzeko parte hartze prozesu bat bultzatu zen, jarduera ezberdinekin: zortzi tailer Foru Komunitateko eremu ezberdinetan (Tutera, Iruña, Lizarra eta Erronkari), zeinetan profesionalak eta herritarrak (81 eta 46 pertsona hurrenez hurren) izan ziren partaide, bederatzi pertsonekin kontatu zuen fokutalde bat eta 119 partaiderekin kontatu zuen webgunean egin zen atal baten irekiera.

Lortutako emaitzen ondorioz, Nafarroako Osasun Sistema Humanizatzeko 2024-2028 Estrategia berriaren oinarriak ezarri ziren. Estrategia horretan argi geratu zen beharrezkoa zela gobernantza parte-hartzailea eta sarekoa garatzea, osasun-politika publikoen esparruan Estrategiak berak dituen ekintza-ildoak (irisgarritasuna, pazienteen tratuan eta autonomian berotasuna, lanbide-zaintza eta -ongizatea eta parte-hartzea) sustatu eta kudeatu ahal izateko, eta Foru Erkidegoko lurralde osoan eta dagozkion osasun-egituretan eta laguntza-elementuetan ezartzea bermatzeko. Hori guztia pertsonengan, herritarrengan zein profesionalengan, oinarritzen den arretan oinarrituta.

Osasun-politikan parte hartzea

Osasun Departamentuak, Departamentu arteko Humanizazio, Aseguramendu eta Koordinazio Zerbitzuaren eta Estrategiaren Aholku Batzorde Teknikoaren bitartez, herritar eta profesional guztien ekarpenei irekitako partaidetza-prozesu hau bultzatzen du, eta, epe horren ondoren, Estrategia onartuko da.

Prozesu honek osasun-arloko arreta-prozesuetan parte hartzen duten eragile guztien protagonismo aktiboa sustatu nahi du. Osasun-zerbitzuek ematen dituzten erabiltzaileen eta pertsonen esperientziak, proposamenak eta iradokizunak balio handikoak dira, eta horrela, herritarrek osasun-politikan duten parte-hartzea baliozkotzen dute.

Humanizazio Estrategiaren ebaluazio-prozesua Estrategiaren Aholku Batzorde Teknikoak bultzatzen du. Batzorde hori Nafarroako Osasun Sistema Publikoko eremu guztietako ordezkariak osatzen dute: Osasun Departamentua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua.



 Lan taldearen bileretariko bat.